

BIDEGURUTZEKO BASERRIA

- Lanetik bidali naute berriro, ama!

Horrela egin dio diosala Anek jada ilea urdindu zaion bere amari. Xelebrea da: kaleratzen zaituztenean, askatasuna sentitu beharrean tristuran preso sentitzen delako norbera. *Langabezia onartzen lanak izango ditugu, orduan pentsatu du berekiko amak.*

Zutik eta tente jarraitzen du Anek baserriko atean, baimen eske bezala; baina amak onespren keinua egin dionean buruarekin bere besoetara jauzi zaio alaba. *Garai batean, jauzi egiten zidan besoetara eta egun, jauzi ez dadin eutsi behar izaten diot.*

- Txorakeria bat izan da, ama. Zegokidan atsedenaldea pare bat minutuz luzatu nahi izan dudanean eskuko minez aurkitzen naizelako, nagusia azaldu, garrasi egin eta kaleratzea luzatu dit...

Negar eta negar ari da alaba. Ehungintzaren sektorean lanean hasi zenetik, laugarren aldia da lanpostu batetik bidaltzen dutela. Eta beti ere, halako txikikeriengatik suertatu da: kantuan hasi delako lanean, gaixorik dagoen lankide bati lagundu nahi izan diolako... Emakume prekarioaren aurpegia hartu du ehungintzaren sektoreak. Eta arrakala itzela dago.

Arrakala itzela, lehengo garaien eta oraingoan artean.

Diseinu ikasketak egin zituen bere garaian alabak. Marrazteko unean ere, arte ederren jabe zela ikusteko parada izan zuen amak. Baina zoritxarrez, bere bizitzaren hautuak amestutako bizimodu bat ez diseinatzera eraman zuen.

Eta bere ametsak marrazteko aukera alde batera utzi, eta beste errealitate bat zirriborrazera eraman zuen patuak.

Abagunea probestu behar duela pentsatu du amak. Euren baserria, bidegurutze batean aurkitzen baita. Eta aldi berean, bidegurutze batean aurkitzen delako.

Krisiari egotzi dakioke egoera latz hau. *Dena den, gure baserrira ez zen sekula krisirik etorri... sekula ere ez zelako bertatik joan. Beti geunden*

krisian! Epe motzeko kontratuak bata bestearen atzetik kateatzen joan da alaba eta azkenik, esklabutza moderno batekiko kontratua sinatu du bere gogoaren aurka.

Ama bera ere, zalantzan aurkitzen da. Baserria eta inguruko lur sailak berari saltzeko proposamena egin dio hiri handiko aberaskume batek. Lehenik, landetxe batean bihurtu nahi omen du baserria, geroxeago hotelak eta apartamentuak kudeatzen dituen higiezin kate bati saltzeko.

Guzti horri, baserria erosi zuteneko zorrak kitatzeko duten egungo zailtasuna gehitu behar zaio. *Euribor-bor madarikatu hori, pil-pilean jartzen dituen gure diru apurrak!*

Bera ere, zalantzan kateaturik aurkitzen da; hortaz. Horregatik ulertzen du hain ongi bere alabaren etsipena.

Egia esan, amaren maitasunaren orografian, baserriko zelai eta soro lau guztiak gailurtzat ditu. Bere sendiarekin hainbat hamarkadetan zehar landutakoak, haiek denak ere. Eta bere barne paisaian, mundua beragan egunero jaiotzen da leihoak zabaldu eta bizia sartzen denean baserrian.

Baserriak agian, bere kabuz ez duelako mundurik salbatuko baina bera bezalakoan barne munduak salbatuko dituelako.

Bere amonak azaldu zizkion kontuez akordatu da, haren belarrietara birramonaren birramonak kontatutakoak; bere belarrietara iritsi arte. Haiek ere ehungintzan jardundako emakumeak izan ziren, eta *emakume askeak* deitzen zieten.

Ehungintzaren kulturari aritu eta horren ostean, kultura bat haritu zutelako. Kantuaren eta hitzaren lihoa iruten jardun zirelako urte askotan, ahalik eta kotoia agertu zen arte.

Eta ameriketako azal beltzekoekin gertatu zen bezala, kotoiak beste mota bateko esklabutza bat ekarri zuen gerora Euskal Herrira. Emakumeen bizimoduetan menpekotasun egoera bat txertatu zuelako, denboraren joanean okerrera egin duena.

Odolaren mintzoa entzuten zekiten emakumeak ziren. Lehen hilekoa izan ostean 11 edo 12 urterekin, baserrian lur sail oso bat oparitzen zieten

bertan lihoa landu zezaten. Eta ezkontzen zirenerako, euren soinekoa egiteko materiala izan zezaten. Askatasun mugatu bat zen zalantzarik gabe derrigorrez ezkondu beharrekoarena, baina garai haiek gaurko begietatik ezin dira begiratu. Ulertzeko, garaian garaiko begiekin ikusten jakin beharra dagoelako.

Bere eta alabaren bidegurutzearekin bat egiten du baserriarenak. Iragana etengabe gaurkotzen den orainaldi baten zati delako harriz harri eta eskuz esku auzolanean eraikitako baserri zaharra. Ez da etxe soil bat, etxebizitza bat da, non bizitzak aterpe hartzen duen teilatupe horretan.

- Ane, gure etorkizuna batera diseinatu eta marraztuko dugu, ados?
- Baina...nola ama?
- Lursail guzti hauek lihoa lantzeko erabiliko ditugu, garai zaharretan bezala. Zure irudimena eta nire esperientziarekin, aurrera aterako gara!

Eskutik helduta, mendiek osatzen duten ortzimuga berdeari itxaropentsu begiratu diote.

Ezintasunean kateaturik egotetik, arbasoen katebegi izatera pasa baitira.

AMA